

GUaiXE.eus



Zinema **kalera** aterako da udan Irurtzunen



Kultura >> 14

Asteazkenean festen **lekukoa hartuko dute** Irurtzunek eta Iturmendik. **Bi herrietan bost eguneko ospakizunak** izanen dira



Sakanerria >> 10

Alkateak goi tentsioko linearen kontra >>7



Auzolandegira etorritako batzuk galtzada agerian uzteko lanean.

Galtzadan, auzolan >>5



Herri kirolari sakandarrak sanferminetan lehiatzen >>12



Sakanako plaza digitaleko kide egiteko aukera azokan >>3



Beleixeguaixe txartela erabiltzeak saria dakar >>5



Arakilgo Udalak sei langile kontratatu ditu 6 hilerako >>9



Astelehenean hasiko da FyTren kontrako epaiketa >>8

Txartel freskagarria

Zozketak

UZTAILAK 16

Kaluxa jatetxean (Urdian)
2 lagunentzako bazkaria.

Gixane Estetika zentroan (Altsasu), alaitasunaren peeling-a.

Artazako kanpinean
2 lagunentzako gau baterako egonaldia eta Finlandia sesioa.

Hurrengo ZOZKETAK:
Uztailak 23
Uztailak 30

Oporretatik bueltan...
sorpresa gehiago!

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazaren itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia • ALTSASU • Telf./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Egoi Urtasun Etxeberria
ZORIONAK trasto txiki!! Gaur 5 urte bete-ko dituzu. Oso ongi pasa, mila kilo muxu aittuna eta amiñaren partez.



YEPE MARKEL!
Ostiel hontan 2 urte! Zenbat egun ya hitas gozatzen. Muttil tiki alai bet eenik hagoo, eta alkar juntetuko gettuk egun hontan hii zorionak ospatzeko. Zorionaaakkk... hii famelikuek.



Urdiaingo festetan giro bikaina egon da, eguraldia lagun. Igandeko San Pedro erromerian David Oroz alkateak dantzatu zuen lehen zortzikoa. Dantzaldiak herrian segitu zuen.



garilak

10-16

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.eus

Zinema

Noche en el museo. El secreto del Faraón. Garilaren 14an, asteartean, 22:00etan Irurtzungo Foru plazan.



Diumenge a les 5. Garilaren 16an, ostegunean, 22:00etan Etxarri Aranazko plazan.

Mendi irteerak

Erkuden. Garilak 12, domekan, goizean Altsasuko kirol etxetik. Altsasuko Mendigoizaleak.

Bizikleta irteerak

Altsasu-Maetzu-Altsasu. Garilaren 11n, larunbatean, 8:30ean Altsasuko kultur gunere paretik. 133 km. Zikloturista taldea.

Musika

La banda del jefe Bigun. Garilaren 16an, ostegunean, 23:15ean Altsasuko igerilekuan.

Bestelakoak

Guaixe.eus-eko komunitateko kide egiteko. Garilaren 15ean, asteazkenean, 11:00etatik 13:00etara Altsasuko azokan.

Festak herritik herriarendako. Garilaren 16an, ostegunean, 19:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean



batzarra. Herri mugimendua.

Udako festa goxoa. Garilaren 16an, ostegunean, 21:00etan Altsasuko igerilekuan. 12 urtetik aurrerako gazteendako.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Garilaren 10ean, ostiralean, 20:00etan Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira!

Garilaren 12an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- Alkateak goi tentsioko linearen kontra
- Asteko errebasoa

Esataria: Alfredo

beleixe

107.3 FM

www.guaixe.eus-en ON LINE

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

SAKANA

Sakanako plaza digitala

www.guaixe.eus web guneak helburu hori du eta sakandarren parte hartzea sustatzeko web-aren tresnetako bat komunitatea da. Haren kide nola egin azalduko dugu hurrengo hiru asteazkenetan Altsasuko azokan, 11:00etatik 13:00etara

Guaixe.eus Sakanako herritar, erakunde eta talde guztiendako leiho irekia da. Web orriak parte-hartzea eta elkar-eragintza bideratu eta forma emateko Komunitatea izeneko gunea du. Guaixe.eus-eko Komunitatean edozeinek kontua ireki eta artikulua, argazki eta galeriak igo ditzake. Komunitateko partaideak eurak kide izateaz aparte, berriemaile eta ekintzaile bilakatzeko dira horrela, eta baita albiste iturri. Guaixe.eus ireki eta parte-hartzaileagoa bilakatzen du Komunitateak.

Hala, gizarte, kirol eta kultur taldeek euren jardunaren berri Sakanaguztiari emateko aukera eskaintzen du. Edonorberaren errezetak, ikerketak, artikulua eta bestelakoak zabaltzeko ere. Edozein sakan-

dar, dagoen tokian dagoela, informazio eta iritzisortzaile bihurtu daiteke. Leiho ireki horri esker, Komunitateari esker, Guaixe.eus sakandarren ataria da, informazioarako, entretenimendurako eta komunikazioarako. Sakanaz euskaraz sarean aritzeko sakandarren topalekua, azken finean.

Gonbitea

Oinetako, arropa, fruta, barazki, etxe tresnak eta bestelakoen artean heldu diren hiru asteazkenetan Altsasuko azokan Guaixe.eus-en eskaintza freskoa izanen da. Bierrik fundazioko kideak azokara joan dira eta interesa duen guztiari Komunitatea ezagutu eta bertako kide egiteko aukera emanen dio. Sakandarrek edo ibarreko taldeek eta erakundeek euren profilak sortu eta, haren bidez, euren argazkiak, argazki galeriak, testuak, bideoak eta audioak partekatu ditzakete. Gainera, iruzkinak egiteko aukera ere ematen du.

Egutegia

Garilak 15
Garilak 22
Garilak 29

Informazio gehiago:

www.guaixe.eus/info/komunitatea



Edozein, eta edozein gailurekin, erraz asko egin daiteke omunitateko kide.

Sakandar euskaldunok, euskaraz bizi garenok, bizi nahi dugunok euskarazko komunikabideak behar ditugu: gure berri izan eta zabaltzeko; gure existentzia, bizitasuna, bizinahia, bizipenak eta bizipozak konpartitzeko; komunikatuta bizi eta komunitate izateko. Sakanako euskardunen komunitatea trinkotu, saretu eta indartzeko tresna Guaixe.eus eta bere Komunitatea. Gure hizkuntzan bizitzeko espazioa eta unea eskaintzen du.

Gainera, Aztiker etxeak egindako ikerketak erakusten dutenez, Guaixeren eragina ez da Sakana-

ko euskarazko komunitatera mugatzen, erdaldunengan ere eragin positiboa du, euskarara hurbiltzeko motibazioa izan daiteke. Eginez eta eraginez euska-

raz biziko den herria eta ibarra lortuko dugu horrela. Auzolanean eta elkarlanean. Azken Korrikaren leloa gogoan ekarriz, ahaldundu gaitezen.

Sakanako gida

2015-2016

IRAGARRI NAHI DUZU?

AZKEN EGUNA: UZTAILAK 31



948 564 275 · 948 562 107

publi@guaixe.eus (Eneida)

publizitatea@guaixe.eus (Maria)



Aingeru Mikeo

astekoa

XXI. mendeko borrokalaria

Zenbaitetan, pertsona bat ezagututa sentsazioa izaten da benetan merezi izan duela, eta aingura edo marka moduko bat uzten duten norberaren gogoan. Duela egun batzuk horrelako pertsona bat ezagutzeko ohorea izan nuen Etxarriko Mandoibai elkarteak antolatutako hitzaldi batean.

Pertsonaren lehenengo itxura ikusita, nahiko alternatiboa esan nuke, zalantzaren bat sortzen

da: berrogeita hamar urte ingurukoa, metro eta laurogeitik gorakoa eta koleta batean hartutako ile erabat urdindu. Alabaina, haren prestakuntza etalari esperientzia ikusita, benetan aintzat hartzeko modukoa: ingeniari-tza eta agroekologian lizentziatua eta hainbat master egina, Unesco-FAO-NBE eta beste erakunderentzat aholkularitza lanetan aritua, hainbat eta

hainbat naziotan ikastaroak emana, eta abar.

Nekazaritza organikoak da bere gaia. XXI. mendeko borrokalaria ekonomia globalaren nagusi "psikopatak" ditu jomugan, eta haien menpeko unibertsitateak zientzialari morroiak sortzeagatik. Munduko aniztasuna xahutuz, monokultiboak inposatzen dituzte. Pertsonen eta herrien aberatasunaren orde, lobbien espekulazio irabazia. AEBko Monsanto da heriotzaren ikurra, hazi transgenikoen eta pestiziden ekoizlerik handiena.

Jario handiko hiztuna, komunikazioa estrategiak nahierara erabiltzen dituena, argia, ezagutzan jakintsua, lotsagabea, hiztegi dotorea batzuetan, gordina besteetan; edozein modutan, arretaz, harrituta, eta entretenituta entzuteko modukoa.

Jairo Restrepo kolonbiarrak bizitzaren aldeko erabaki kontzientea hartu du eta aurre egiten dio mundua hondamendira eta heriotzara daraman erraldoiari. Energia transmititzen du eta erakusten du gauzak beste modu batera ere egiten ahal direla.

Aingeru Mikeo
aingerumi@gmail.com

barrutik kanpora

Ez diezadatela moztu

Argia moztu didate... Hitz hauen esaldi batek ez du ezer onik iragartzen. Gehienetan, argi eteteak fakturak ez ordaintzearen ondorio izaten dira. Arautegiak adierazten du horniketarako bakarrik eten daitekeela konpainiak ordaintzeko eskatu zuenetik bi hilabete igarotzen direnean, hau da, ezin zaio inori argia moztu ordain-

giria ordaintzeko epea igaro eta egun batzuk beranduago ordaindu ez badu ere.

Kasu honetan, enpresak dudarik gabe jakinarazpena bidali behar du azaltzeko ordainagiritzat zor duela eta, ez bada bi hilabete ordaintzen, argi gabe geldituko dela. Enpresaren erantzukizuna da jakinarazpena egin

duela frogatzea, eta azaldu behar du zer egunetan etengo den horniketara.

Kontsumitzaileak, faktura, dagozkion interesekin ordaindu, eta hurrengo egunean berrezarriko da horniketara. Gainera, konexioa berriz ezartzearen zenbatekoa ordaindu behar du. Zerbitzuaren eteteak bi hilabete beran-

gehiago irauten badu, konpainiak kontratua ezeztatu dezake.

Telefonia moztu didate... Telefonía finkoaren arloan, zerbitzua aurretik abisua emanda eten daiteke, bezeroak zor duena hilabete batean ordaindu ez badu. Behin-behineko etete legezkoa berriz gertatzen bada edo kontsumitzaileak hiru hilabete beran-

duago ordainagiria ez badu ordaindu, konpainiak kontratua ezeztatuz eman dezake eta linea behin betiko eten. Telefonía mugikorraren kasuan, linearen etetea kontratuan adierazi behar da, baina askotan, ordaintzeko soil bat ez egiteagatik zerbitzua eten daiteke.

Iratxe

hara zer dien

Alkoholari buruzko hausnarketa: benetan ezagutzen al ditugu ondorioak?

Gure gizartean alkoholaren kontsumoa oso normalizatuta dago, ospakizunetan erabiltzen dugu eta gizarte harremanetan lagun izaten dugu askotan. Irudi hau guztiz zabaldua dagoenez helduen artean ez ezik, nerabeen artean ere alkoholaren kontsumoa zabaldu da, eta goizegi hasten dira alkohola edaten.

Ikerketek adierazten dute nerabe eta gazteentzat alkohola kaltegarriagoa dela helduentzat baino, batez ere burmuinari begira. Adin hauetan burmuina oraindik garatzen ari da eta

garun-funtzioetan konponezinekoko kalteak eragiten ditu, oroimengarekin lotutakoak, koordinazioarekin...

Gainera 15 urte baino lehen alkohola edaten hasi direnek lau aldiz errazago garatu ahal dute alkoholaren menpekotasuna, 21 urte eta gero hasi direnek baino. Pentsatzekoa bada, beraz, noiz eta nola hasten garen alkohola edaten. Hona hemen ondorio batzuk:

Epe laburreko ondorioak

Hitz egiteko zailtasuna, gorakadak, beherakadak, buruko mina,

urdaileko mina, arnasteko zailtasunak, koordinazio falta, konortea galtzea, koma...

Epe luzeak

Nahigabe jasotako lesioak: auto istripuak, erorketak, erredurak. Nahita eraginak: etxe indarkeria, su-armaz eginak, bortxaketak. Osasunekoak: buruko isuria, gibel gaixotasunak, nerbio kalteak, sexu arazoak, gastritis, ultzerak, baita aho eta eztarriko minbizia ere.

Nola gutxitu ahal ditugu ondorio latz hauek?

Edan ala ez edan baino garran-

tzitsuagoa da edateko modua. Mozkor bat uste duguna baino kaltegarriagoa da, eta horretaz konturatu behar gara. Etxean familiaren hurbiltasuna oso garrantzitsua da, gai honi buruz hitz egin beharra daukagu eta informazioa izan behar dute gazteek. Administrazioak ere badu bere lana, informazioa eta sensibilizazioaren bidez, batez ere.

Udako kanpaina

Sakanako eta Leitzako gizarte zerbitzuetako aurtengo prebentzio programak udako kanpaina martxan ipini du. Kanpaina

14, 15 eta 16 urte bitartekoei zuzenduta dago (eskualdearen arabera) eta haren ardatza da adin gutxiakoetan alkoholaren kontsumoak epe labur eta ertainean duen eragina. Familientzako eta nerabeentzako informazioa emateaz gain, motxila bate ere banatuko da. Bertako logoak era subliminean denbora eta edandako kantitatea eta ondorioak agerrarazten ditu. Etxean jasoko dute.

Prebentzio programak

ZUZENKETA >>

Aurreko astean txistuari eta txistulariei buruz argitaratutako artikuluan Jose Ignazio Ansorena beharrezan Isidro Ansorena aipatu genuen.

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano

ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai

ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800

Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675

KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus

DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia

Salgado • argi@guaixe.eus

ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995

TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK 

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburuordetza

SAKANA

Txartel freskagarria

BeleixeGuaixe txartela duten eta erosketan egiten duten guztien artean sari eder bana zozketatuko dira hurrengo hiru asteetan. Txartel freskagarria kanpainak Sakanan bertan erosketak egitera bultzatzea eta bertako komertzioak sustatzea du helburu

Sakanako 80 establezimenduetan bainogehiagotan dago BeleixeGuaixe txartela erabiltzeko aukera. Heldu diren hiru asteetan Txartel Freskagarria kanpaina martxan izan da. Denbora tarte horretan establezimendu horietan erosketaren bat egiten duten txarteldun guztiak sari baten zozketan sartuko dira.

Berdin da establezimenduko abantaila baliatzeko gutxieneko gastua ez egitea. Erosketa egitea bakarrik dendariak izen-abizenak eta harremanetarako telefono zenbakia idazteko txartel bat emanen dio bezeroari. Eta jasotako guztien artean, ostegunero, BeleixeGuaixeko txartela dutenen artean sari eder bat zozketatuko dugu. Sarituen berri Guaixe astekarian argitaratuko da agorriera arteko ostiralean.

1550 txarteldun

Bierrik Fundazioak sustatzen du BeleixeGuaixe txartela eta haren erabilerari bultzada emateko anto-

latu du Txartel Freskagarria kanpaina. Fundazioaren babesle diren 1.550 sakandarrei gonbitea luzatu zaie heldu diren hiru asteetan atxikiak dauden establezimenduetan erosketak egin eta euren txartela erakusteko eta zozketan parte hartzeko.

BeleixeGuaixe txartelaren jabeek erosketa ondoren datuak emate hutsarekin hiru sari ederren zozketan sartuko dira. 1.550 dira Bierrik Fundazioaren babesleak. Guztiek erosketa txiki bat eginda ere Sakanako establezimenduei bultzada ematen diote. Aldi berean, ibarretan erostean sakandarren arteko harremanak ere sustatzen dira,

Laburrean

1. BeleixeGuaixe txartelako abantailak dituen establezimenduetan erosketa egin.
2. Txartela erakutsi. Izen-abizenekin eta kontakturako telefonoarekin paperak egin.
3. Ostegunean zozketa.
4. Ostiralean Guaixe astekarian sarituen berri emanen da.

Zozketak

UZTAILAK 16
Kaluxa jatetxean (Urdiain)
 2 laguntzako bazkaria.
Gixane Estetika zentroan (Altsasu), alaitasunaren peeling-a.
Artazako kanpinean
 2 laguntzako gau baterako egonaldia eta Finlandia sesioa.

UZTAILAK 23
Olatzea jatetxean (Arbizu)
 2 laguntzako bazkaria.
Ederne ilepaindegi eta estetika zentroan (Lakuntza)
 makilaje sesioa.
Urbasa Abentura parkean
 ferrata bidea eskalatzeko 2 sarrera.

UZTAILAK 30
Iru bide jatetxean (Altsasu)
 2 laguntzako bazkaria.
Lizardi estetika zentroan (Etxarri) aurpegiko lifting-a.
Errotainen (Urdiain)
 2 laguntzako zaldi ibilaldiak.

Sarituen izen-abizenak Guaixe astekarian argitaratuko dira.

herriei aberastasun soziala emanez.

Sakanan erosizgure herrietako jarduera eta dinamismoasus-pertzen ditugu eta, gainera, orain saria irabazi dezakegu.

Txartela martxan jartzearen arrazoietako bat hori izan zen. Eta, harekin batera, Sakanan 20 urtez euskarazko hedabideak (Guaixe astekaria eta Beleixe Irratia, FM107,3) sustatzen duen Bierrik Fundazioaren autofinantziazio maila igotzea. Fundazioko babesleei txartelaren bidez establezimenduetan abantailak eskaintzen zaizkie.

BeleixeGuaixe txartela lortzeko

Txartel Freskagarria kanpaina martxan jartzearekin batera, atxikitako establezimenduetan txartelaren abantaila guztiak jasotzen dituen eskuorria eskuratu daiteke. Haren

atal batean bazkide egiteko fitxa ere egon da. Bestela, 948 564 275 eta 948 562 107 telefono zenbakietara edo www.guaixe.eus atarian sartu eta Bierrik Fundazioko bazkide/babesle egin. Urteko 50 euro ordaindu behar dira eta trukean etxean txartela jasoko du.

BeleixeGuaixe txartela erabi-

li daitekeela dioten identifikatzaileak daude establezimenduen sarreretan. Erosketak Sakanako dendetan egiten dituzten babesleek erraz errekuperatuko dute ordaindutakoa. Gainera, errenta aitortpenen %25 desgrabatuko du foru administrazioak.



Auzolandegikoak lanean.

Galtzada agerian uzten

Bernoako galtzada azaleratzeko auzolana egin zen larunbatean

Dozena erdi etxarriar, iturmendiarra eta atzerritik auzolandegira etorritako 11 emakumeak elkarrekin lanean aritu ziren larunbatean. Lehenak Etxarri Aranazko Udalak egindako auzolan deialdiari erantzunez joan ziren. Bigarrenak bi aste emanen dute eginkizun horretan. Etxarri aritu ondoren, Bakaikun, Iturmendin eta Urdiainen aritu dira lanean. Bi egun eta erdi bakoitzean.



Ekinez galtzada agerian uzten ari dira Etxarri eta Urdiain artean.

Bernoako galtzada azaleratzeko auzolana

Larunbatean, 9:00etan, Iturmendiko plazatik abiatuta. Sakandar guztiendako deialdia Aurreko larunbatean Etxarri Aranazko Udalak egin bezala, Iturmendiko eta Urdiaingo Udalek Bernoako galtzada berreskuratzeko auzolana deitu dute. Parte hartunahi dutenek bihar, 9:00etan, Iturmendiko plazan egon behar dute. Handik Haitz-Txikira abiatuko dira, lanera. Horretarako, aitzurra eraman behar dute.



IRTEN EGUNEROKOTASUNETIK.

CITROËN C4 CACTUS. CROSSOVERRA KOLORE GEHIAGOREKIN.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

ABC 2015 EKO ESPAINIAKO URTEKO KOTXEA



CITROËN C4 CACTUS
PURETECH 82 FEEL EDITION

12.900€^{-REN TRUKE}

7"KO ESKUZKO PANTAILA
AIRBUMP BABESLEAK®
KLIMATIZATZAILE AUTOMATIKOA
6 AIRBAGS
17"KO ALEAZIO HAGUNAK



citroen.es

CITROËN nahigo du TOTAL. *Citrönek nahigo TOTAL *PSP Aholkatuta C4 Cactus Pure Tech 82 Feel Edition (zergak, garraioa, eskaintzak eta Pive 8 Plana barne), bere izenean zegoen kotxea ekartzen duten bezero partikularrendako eskaintza 6.000€ko gutxieneko finantzazioa eskatzen dutenak Banque PSA Financieren bidez 36 hilabeteko iraupena izango dutenak. Eskaintzaren epea hilabete akabera arte, Penintsulan eta Balearetan. PSP Aholkatuta finantzatzeko ez duen bezeroarentzat: 14.100€. Ikusgai dagoen erueda, aurkezten den bera. Baldintzak www.citroen.es (1) Citroën Asistencia: baldintzak www.citroen.es. Automóviles Citroën España, S.A. c/ Dr. Esquerdo, 62 - 28007 Madrid. CIF: A-8284473

KONSUMO MIXTOA (L/100KM) / EMISION CO₂ (G/KM): CITROËN C4 CACTUS: 3, 1 - 4,7 / 82 - 107



SAKANA

Etxarriko Osasun Etxea euskalduntzeko eskaerak eregistratuta

600 sinadurak Osasun kontseilariari, Nafarroako Arartekoari eta Behatokiari bidali dizkiote

Etxarri Aranazko osasun etxeko zerbitzua eta Emakumeen Arreta Zerbitzua euskalduntzeko 600 sakandarren sinadurak jaso zituzten udaberri bukaeran. Hainbat eragile jasotzen dituen Osasungintza Euskaraz taldeak sustatzu zuen bilketa. Sakandarrek haien bidez hiru eskaera zehatz egin dizkiote foru administrazio-



Osasungintza Euskaraz taldeko kideetako batzuk aurkeztu zituzten sinadurak.

ari: osasun etxeko lanpostuek plantilla organikoan euskara eskakizuna izan dezatela; dagoeneko lanean ari diren eta beharra duten langileek euskalduntze plan bat izatea eta, azkenik, idatzizko euskarriak ere euskaraz egotea bermatu dadila (hizkuntza paisaia, agiriak, zitazioak, txostenak, aholku-zerrendak...).

Eskaera horrekin bat egin dute ikastetxeetako orientatzaileek. Izan ere, Emakumeen Arreta Zer-

bitzutik sexu heziketa programa garatzen da ikastetxeetan. Leitzza, Larraun eta Sakanan ikasle gehienak Dereduan ikasten dutela gogoratu dute, gaineratuz: "sexualitatearen heziketa euskaraz eskaintzea eskubidea izateaz gain, oinarriko behar bat da eskola komunitatearentzat. Kalitatezko Hezkuntzaren garapenak eta bermeak hizkuntzaren, euskararen, betekizuna bere baitan behar du, berezkoa du".

>> Olatzagutia

Udako euskarazko aisialdia



Udan Euskarazko parte-hatzaileak. UTZITAKOIA

Udako euskarazko aisialdi programaren eskaintza egin du Olatzagutiko Udalak. 5 eta 12 urte bitarteko 88 haur parte hartzen ari dira. Zortzi taldetan daude banatuta, D ereduko bost eta B ereduko 3. Haie-taz bederatzita begirale arduratzen dira. San Juan bezperan hasi zen Udan Euskaraz programa eta garilaren 17ra arte luzatuko da.

Astegunetan 10:00etatik 13:00etara elkartzen dira haurrak. Eguraldia lagun, ur jolasak egin dituzte. Zientziarekin ere ausartuko dira eta esperimenduak eginen dituzte. Gorputza margotu, ukenduak egin, mugimendua landu, apar festa... denetariko dinamika programak irauten duen lau asteetan.

>> Lakuntza

Arregiren senideak German Rodriguezen omenaldian

Garilaren 8an, urtero moduan, San Fermín 78 Gogoan plataformak German Rodriguez omentzeko ekitaldia egin zuen Iruñean. 1978an poliziak tiroz hil zueneko omenaldian diktadurako eta trantsizio garaiko biktimen guztien aitortpena eta sortutako kaltea konpontzeko eskatu zuten. Rodriguezen senide eta lagunekin batera, ekitaldian beste hainbat biktimen senideek parte hartu zuten, haien artean Mikel Arregi lakuntzarrarenak. Estreinakoz, Iruñeko Udaleko alkatea eta zenbait zinegotzi izan ziren omenaldian.



Mikel Arregiren senideek Rodriguezen oroigarrian lore eskaintza egin zuten.

>> Irurtzun

Uda ITBn

Maiatzeko Irurtzun Telebista (ITB) erreposoa kirolez bete aitorri bazen, garagarzaroko udari eskainia da. Igerilekuen sasoi berriaren berri ematearekin batera San Joan bezperan suaren inguruan, plazan, sorginek egindako akelarrearen irudi ikusgarriek osatzen dute ITBren azken emanaldia, www.irurtzuneuskaraz.com web orrian ikusgai dagoena.



ITBren garagarzaroko erreposoan ikus daitekeen irudietako bat.

>> Olatzagutia

Porlandegiko lokomotorak Iruñera bidaiatuko du

Estatuko bigarren lokomotora zaharrena da, Iruñeko Udalak zaharberri eta Kosterapean kokatuko du

Porlandegiko lokomotora Iruñeko Udalaren esku geldituko da, enpresak hari emateko interesa azaldu eta gero. Hura arduratuko da ibilgailua zaharberrietaz. Zehazki, lixatu, herdoila kendu, saneatzeko masak eman, egoera txarrean dauden txapak ordezkatu, margotu eta bernizatu egingen du. Lan horiek guztiak despeditu ondoren, Iruñeko Udalak lokomotora Kosterapea parke berriari jarriko du, Olata eta Plazaola zubien artean. Horretarako udala Nafarroako Trenbidearen Lagunen Elkartearekin elkarla-

nean ari da.

Lokomotoraz

1863an egindako tren lokomotora da Olatzagutitik Iruñera eraman dutena. 2015 zenbakidun MZA (Compañía de los Ferrocarriles de Madrid a Zaragoza y Alicante) serie bateko lokomotora bat da. Creusotk izena izenez ezagunak egin ziren eta bidaiarien tren azkarrerarako, onenatarako, erabili ziren halako lokomotorak. Hiru serie egin zituzten.

1901ean bestelako lokomotorek ordezkatu zituzten eta enpresa garraiorako erabili ziren. Aipatutakoa, lehenik, Iruñeko azukre-lantegian erabili zuten. 1946 urte ingu-

ruan Olatzagutiko porlandegiak eskuratu zuen eta 30 bat urtez erabili zuen. Aurrerapenekin batera, enpresaren sarreran, trenbide ondoan erakusgai gisa urteak eman ditu. Bere historia balioagatik lokomotora Nafarroako eta estatuko Ondasun Higigarrien Inbentario Nagusian dago sartua.

Datuak

34.430 kilo pisatzen ditu hutsik eta 49.680 kilo zerbitzuan dagoenean. 14 metro luze ditu eta 3.500 kilo ikatzerako gaitasuna du.



Porlandegian dagoen lokomotorak Iruñeko Kosterapean bukatuko du.

SAKANA

Alkateak goi tentsioko linearen kontra azaldu dira

Altsasun egindako batzarrean Deikaztelu eta Itsaso arteko linearen egitasmoa sektore elektrikoaren garraio sarean estatuko planifikaziotik kentzeko eskatu dute

“Gure herrietako etorkizunarekin dugun konpromisotik eta bizi-modu duina izateko eskubidetik”, Deikaztelu eta Itsaso arteko proiektuak kaltetzen dituen herrietako alkateek, proiektuari euren oposizioa berretsi diote. Aldi berean, Nafarroako eta Euskal Autonomi Erkidegoko gobernuak eskatu die Industria, Energia eta Turismoako Ministeriora zuzentzeko eta eska diezaiotela 2015-2020 Sektore Elektrikoko, Garraio Sarearen Planifikaziotik, Itsaso -Deikaztelu arteko goi tentsioko linea egitasmoa kentzeko.

Duela bi urte argindar linearen kontra 174 herritako alkateek, 220 udal eta kontzejutan onartutako mozioaren sentipena jaso

zuen larunbateko adierazpenak. Orduan proiektuaren tramitazioa gelditzea eskatu zioten Energia Ministerioari, baina ez zuten halakorik egin, eta egitasmoa informazio publikoan jarri zuen. Horri erantzunez erantzunik jaso ez duten 14.000 alegazio aurkeztu zituzten egitasmoak ukitutako udalerrietako herritarrek.

Egitasmoaz

2015-2020 Garraio Sarearen Planifikazioa jasotzen duen dokumentuaren arabera Sakanan barna Orkoien eta Itsaso lotzen dituzten 220 kVeko bi lineak berrindartu egingen lirateke, “Nafarroa eta Gipuzkoarako aurreikusitako beharrak estaltzeko”. Eta Deikaztelu eta Itsaso arteko 400 kVeko linea berria egingen litzateke “Frantziara esportatzeko”.

Alkateen batzarrak argi du linea proiektu berria “ez dela iga-



Alkate edo haien ordezkariak, kopuru hori izan zen larunbatean Altsasun. Sakanatik: Arakil, Arbizu, Etxarri Aranatz, Itur-

mendi, Uharte Arakil, Bakaiku, Lakuntza, Arruazu, Irañeta eta Urdiain (festetan zeudenez, ez zen agertu).

rotzen den herriek dauzkaten beharrak hornitzeko, baizik eta estatu espainiarraren eta frantziarraren arteko lotura handitzeko eta hau informazio publikoara bidali zen dokumentua ere ez zegoen jasota”. Alkateen iritziz, “127 km-ko autopista elektrikoa, erabat bateraezina da pasatzen den eskualdeetako garapen aurreikuspenekin eta horrez gain ingurumenean, osasunean eta ehun produktiboan eragin bortitza ekarriko du”.

Nafarroako Gobernu berria eratzeko lau alderdien artean onartutako akordioan argindar linearen egitasmoari aipamena egiten zaio. Alkateek “akordioen terminoen” aurrean harridura azaldu zuten. Gobernu berriari eta hura sustatzen duten alderdiei Altsasun esandakoa entzuteko eta berehala gaiari heltzeko eskatu diete.

Udal hautetsiak Udalbiltzan izena ematera deitu dituzte

Atxikimendua www.udalbiltza.eus web orriaren bidez egin dezakete alkate eta zinegotziek

Udalbiltzak, Euskal Herriko udal eta udal hautetsien biltzarrak, hautetsien atxikitze prozesuari ekin dio. Erakundetik nabarmendu dutenez, udal hauteskunde ondoan Euskal Herria

aitortzen duten hautetsien kopuruak gora egin du. Udalbiltzak bere nazio gobernu udazkenean berritu nahi du, eta hori egin ahal izateko lehenik hautetsiek erakundearen izena eman behar dute.

Udalbiltza duela bi urte berretatu zenetik 183 alkatek eta 1.500

hautetsien babesa jaso du. Udalbiltzaren “erronka hautetsien aniztasuna, babesa eta parte-hartzea handitzea da. Eta denak batera Euskal Herriaren antolaketan aritzea”. Udalbiltzaren atxikitze prozesuarekin bat egiten lehentakoa Etxarri Aranazko alkate Eneka Maiz Ulaiar izan da.



Udalbiltzari atxikimendua azaldu diotenen artean Etxarriko alkatea dago.

Etxarri Aranatz



Trenbidea ez gurutzatzeko, hesia

Maiatza akaberaz geroztik Etxarri Aranazko tren geltokitik ezin da Basopokale kalera joan. Hori eragotzen duen hesia jarri dute Etxarri Aranazko Udalak eta trenbideen kudeaketaz arduratzen den Adif enpresak. Elkarlanean aritu dira, ikusi baitzuten etxarriar askok, bana-bana edo taldeka, trenbidea zeharkatzen zutela, nahiz eta oinezkoendako pasabiderik ez izan.

Etxarri Aranazko Udalak bando bidez gaztigatu zuen debekatuta dagoela trenbidea gurutzatzea horretarako propio egokitutako pasabiderik ez badago. Trenbidea oinez edo bizikletaz zeharkatzea oso arriskutsua dela ere nabarmendu dute udaletik.

» Arbizu

FyTko kideen epaiketa heldu den astean

Astelehenetik asteazkenera bitartean epaituko dituzte Falange y Tradición taldeko hiru kide Espainiako Auzitegi Nazionalan. Talde terroristako kide izatea leporatu diete Javier Lopez Monreali, Jose Ignacio Irustari eta Borja Illerari. Gutxienez 19 ekintzaren ardura leporatzen diete.

Horien artean dago 2009ko agorrrilaren 20an Arbizun egindakoa. Egun hartan lau zinegotziren izenak eta haien kontrako heriotza mehatxuak (“orain zelatan, bihar hilko zaituztegu”) agertu ziren idatzita Arbizuko udaletxeko fatxa-

dan. Aldamenean Falangeren logotipoa eta “Otsaportillo 1936. Gora Barandalla!” idazkia zeuden. Gero Falange y Tradición taldeak bere gain hartu zituen Euskal Herrian egindako 25 eraso, baina zerrendatu gabe. Urte hartako lastailaren 23an atxilotu zituzten taldeko bost kideak.

Epaiketa duela hilabete bategin beharzen. Baina epaituetakobaten prokuradoreak auto istripua izan zuen maiatzean eta zauriak sendatu bitartean epaiketan ezin zenez egon, hura atzeratzea onartu zuen Fernando Grande Marlaskak.




2009ko irailean gertatutakoa salatzen manifestazioa egin zen Arbizun.

» Etxarri Aranatz

Ekin-eko auzietako zigor eskaerak zehaztu dituzte

Orain arte 14 pertsonak, 2 etxarri tartean, auzi berean epaitzekoak ziren baina sarekada bakoitzeko epaiketa bana eginen da Espainiako Auzitegi Nazionalan

Ekinen kontrako 2010eko eta 2011ko sarekadetan atxilotutako euskal herritarrei fiskaltzaren eta akusazioaren zigor eskaerak jakinarazi dizkiete. Aurreneko sarekadan atxilotutako bederatzietatik zortzirendako, tartean Joxe Aldasoro Jauregi etxarriarra, fiskaltzak 8 urteko espetxe zigorra eta 12 urteko inhabilitazioa eskatzen du. Dignidad y Justicia akusazioak, berriz, 12 urteko espetxe zigorra eta inhabilitazioa. Sarekada horretan atxilotutako beste batendako 12 eta 15 urteko zigorrak eskatzen dituzte, Haika gazte erakundearen epaiketan 6 urteko espetxe zigorra jaso zuelako. Guztiei erakunde terroristako



Lehen atxiloketa salatzen etxarriarren protesta. ARTXIBOA

zuzendaritzako kide izatea leporatzen diete. Epaietarako datarik ez dute oraindik, baina udazkenean edo neguan izan liteke

Bigarren sarekadan atxilotutako bost pertsonen artean Patxi Arratibel Gartzandia dago. Haiendako zortzina urteko espetxe zigorra eskatzen dute, ETako kide izatea leporatuta. Epaietarako data ez diete jakinarazi. Ekin-ek 2011ko lastailaren 1ean bere desegitea iragarri zuen. Barne eztabaida baten eta ezker abertzalearen aldaketa sakonaren ondorio izan zela iragarri zuen orduan.

Atxiloketez

Aldasoro 2010eko irailaren 14an atxilotu zuten Ekin-eko zuzendaritzako kide izatea leporatuta. 3 egun eman zituen Guardia Zibilararen eskuetan. Epaiaren aurre-

an tratu txarrak salatu zituen. Soto del Real eta Navalcarnero espetxeetan izan zuten. 22 hilabete preso egin ondoren 9.000 euroko fidantzepean aske utzi zuten.

Arratibel 2011ko ilbeltzaren 18an atxilotu zuen Guardia Zibila Ekin-eko kide izatea leporatuta. Kuartelean 5 egun eman zituen eta hainbat aldiz buruan poltsa jarri ziotela eta kolpe ugari jaso zituela salatu zuen. Polizi deklarazio batean, bere sinaduraren ondoren aznugal idatzi zuen (laguntza atzekoz aldera idatzita). Epaiaren aurrean tratu txarrak salatu zituen. Horiek ez ikertzeagatik Europak Espainia zigortu egin du. Arratibelek 18 hilabete eman zituen behin-behineko espetxealdian eta bermea ordainduta eta hainbat kontrol neurriekin aske utzi zuten.

» Arruazu

Askapena beharrean espainiar estatua epaitzera deitu dute

Erakunde internazionalista legez kanporatzea eta sei kide zigortzeko eskaera duen epaiketa lastailaren 19tik azaroaren 2ra eginen da. Aurretik espainiar estatu inperialistaren aurkako herri epaiketak egitera deitu dute

Aritz Ganboa De Migel eta beste bost euskal herritarrendako sei urteko espetxe zigorra eskatzen dute ETari laguntza ematea leporatuta. Askapena eta hari lotutako beste erakunde batzuk legez kanporatzeko eskaera ere egin dago. Epaiketa udazken hasieran hasiko da. Hura salatzen Herriak Libre dinamika jarri du martxan Askapenak.

Larunbatean aurkeztu zuten hura Gasteizen. Aitziber Martinez de Lagosek adierazi zuenez, “ez dugu onartzen estatu espainiar-



Askapenako auzipetuak eta kideak Herriak Libre dinamika aurkezten.

rrakeuskal internazionalistak eta euskal eragile internazionalistak

epaitzea. Ez dugu inolaz baimenduko hamaika herriren zapalke-

ta, ukazio eta suntsiketarak eragin dituen Estatu inperialista honek, Espainiar Estatuak hain zuzen, herrien askatasunaren alde borrokatzen dugun kide eta eragileak epaitzea”.

Horregatik, “Euskal Herri errebeldeari eta nazioarteko mugimendu konprometituei” dei egiten zien: “ikasturte berriarekin batera, irailean, espainiar estatu inperialistaren aurkako herri epaiketak burutzera”. Horretarako, udan auzo, herri eta ibarretan antolatzen deia egin zuen, iraileko dena prest izateko. Jakinarazi zuenez, egiten diren herri epaiketa guztien sententziak bakarrean batuko dira lastailaren 12an, “espainiar estatu inperialistaren kontrako herri epaian”.

» SAKANA

Errausketaren kontrako mezua txupinazoan

Iruñeko festei hasiera ematen dien txupinazoaren zain udaletxeko plazan zeuden pertsonak hainbat pankarta zabaldu zituzten. Haietako batek errausketaren kontra eta Cementos Portland Valderrivasek bere egitasmoa gelditzeko eskatzen zuen. Ez da lehen aldiz Sakanako aldarrikapenak Iruñeko festen hasierantokia dutena. 2012an eta 2013an Inasako langileek euren lan gatazkaren berri munduari emateko erabili zuten txupinazoan.



» Arakil

Lanean dira udalak kontratatutako langileak

Arakilgo Udalak urte erdiko kontratua egin die sei pertsonari. Haietako bost udalak eta kontzejuek adostutako herri-lanak egin ari dira. Esaterako, Satrustegiko hilerriko atea zabaldu egin dute, Errozko garbitokian mantentze lanak egin dituzte eta kaleren batean ere. Ihabarko kale txiki bateko zorua ere berritu dute. Eta bide bazterretako landaretza moztan ere aritu dira bostak.

Herri lanetan ari diren bostetako bat pala gidaria da, eta haren laguntzaz Izurdiagan zeuden bi urhes handi konpontzeko aukera izan du Arakilgo Udalak. Trenbide-pasabide berria egiterakoan ur sarea berritu eta halakorik gehiago ez errepikatzea espero dute herrian. Bide batez, Ruben Goñi Urrozalkateak jakinarazi digu udalakagorriaren erdian hartuko duela trenbide-pasabidea kentzeko lanez arduratuko den enpresa.

Deialdia

Urte erdirako kontratatu duen sei garren langileak kultura, kirola, aisialdia eta euskara gaien arduradun du. Goñik jakinarazi digunez, udalaren asmoa lanpostu hori plaza finko bihurtzea da. Beharra sumatzen dute eta deialdia prestatzen hasi dira, baina ez digu zehaztu ahal izan noizko egonen den prest eta noiz deituko den plaza. Lanaldi erdiko lanpostua sortuko luke Arakilgo Udalak.

Bilan

Bestalde, bilan ematea aurreikusen du Arakilgo Udalak. Deialdi mugatu bidez egingen du bost bat enpresari aurrekontua eskatuz eta eskaintzen artean egokiena hartzeko asmoz. Lehen lana aurri egoeran dagoen Etxarrengo Paskal etxean egingen da. Teilatua erdi eroria du eta gelditzen dena kendu eta eraikina egonkortzeko



Aurreko urtean bezala aurten ere palarekin hainbat lan egingen dira.

18.000 euro bideratu ditu udalak. Beste lana Aizkorben egitekoa da. Luizi batek bide baten zatia estali zuen eta halakorik berriro

ez gertatzeko harri-lubeta bat egin nahi du udalak. Lan horrek 12.000 euro aurrekontua izanzen du.

Igogailua

Arakilgo udaletxean igogailua kanpotik jarriko da, "horrela erabilera publikoa eta udaletxekoa izanen ditu", argitu digu Goñik. Izan ere, udaletxearen zehar-aldean, Aralar kalean, dagoen aparkalekutik osasun etxera, udaletxeko sarrerara igotzeko aukera emanen dio edozein herritarri. Eta, horrekin batera, Arakilgo udaletxean gora eta behera ibiltzeko aukera izanen da. Goñik jakinarazi digunez, egitasmoarendako baimena eskaera Irurtzungo udaletxean aurkeztu dute. Aurten egin nahi litzuzte lanak, 85.000 euroko aurrekontua dutenak. Alkateak zehaztu digu erabilera hitzarmena ere adostu nahi dutela Irurtzungo Udalarekin.

» Altsasu

Udalak bere barne egituraketa onartu du

Aurreko ostegunean Altsasuko Udalak legegintzaldiko aurreneko bilkura egin zuen eta bere barne egitura zehaztu zuen. Aurretik, garilaren 25ean eta 30ean, Geroa Bai ko ordezkariak beste alderdietakoekin bildu ziren eta han jasotako ekarpenekin zehaztu zen udal egitura. Hala, Tokiko Gobernu batzordean Pedro Jimenez Elvira (Geroa Bai), Arantza Bengoetxea Intxausti (EH Bildu), Juan Migel Perez Hurtado (PSN) eta Virginia Alonso Aparicio (Goazen Altsasu) izanen dira. UPNk alkatezaren eskaintza atzera bota du. Geroa Bai onartu dutenen jarraera eskertu du. Bestalde, Geroa Bai ko, EH Bilduko eta PSNko buruak izanen dituzte batzordeak. Goazen Altsasukoei lanean aritzeko prestutasuna azaldu zuten.

Batzordeak

Altsasuko Udalak 11 batzorde sor-

tzea erabaki du. Ekonomia garapena, Merkataritza, Turismoa eta Enplegua eta Parte-hartze batzordeetako buru Javier Ollo Martinez (Geroa Bai) alkatea izanen da. Ogasun batzordearen arduraduna Unai Hualde Iglesias (Geroa Bai) hartuko du. Udal antolaketa eta giza baliabideen batzordeko arduraduna Manuel Bergera Ijurko (Geroa Bai) izanen da. Mari Carmen Otaegui Saez de Maturana (Geroa Bai) Nekazaritza, Abeltzaintza, Mendiak eta Ingurumen Batzordeaz arduratuko da. Pedro Jumenez Elvirak (Geroa Bai) Kultura eta Jaieen Batzordea kudeatuko du.

Bestalde, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen lehendakaria Fco Javier Paz Miño (EH Bildu) izanen da. Haizea Ramirez de Alda Pozueta (EH Bildu), aldiz, Euskara Batzordeko buru izanen da. Miren Arantza Bengoetxea Intxaustiren esku izanen da Emakumea eta Berdintasun batzordea. Juan



Altsasuko Udala osatzeko bilkurako une bat.

Bilkurak

Udalak hileko azken asteazkenean egingen ditu bilkurak, 20:00etan. Jai eguna bada, aurreko egunean egingen da.

Migel Perez Hurtado (PSN) Hirigintza Batzordeaz arduratuko da. Julia Cid Gonzalez (PSN) Gazteria eta Kirol batzordeko buru izanen da.

Udal bilkuretan Geroa Bairen bozeramailea Unai Hualde Iglesias

izanen da. EH Bildurena Arantza Bengoetxea Intxausti. PSNko eleuduna Juan Migel Perez Hurtado izanen da eta Goazen Altsasukoa, aldiz, Virginia Alonso Aparicio. Azkenik, UPNkoa Javier Lopez Patu izanen da.

» Olatzagutia

Udalak 8 batzorde izanen ditu

Garagarrilaren 30ean egindako bilkuran Olatzagutiko Udalak bere barne antolaketa erabakia utzi zuen. Batetik kontuen batzorde berezi bat izanen da, zinegotzi guztiek osatuta eta alkatea buru dena. Bestetik, zortzi batzorde izanen ditu udalak eta haiek hiru hila-betean behin elkartuko dira gutxienez. Batzorde guztien lehendakaria EH Bilduko zinegotzien bizkar izanen da. Hala, Gurutze Rodriguez Armendariz alkatea

hiru batzorderen buru izanen da: Hirigintza; Gizarte Gaiak, Berdintasuna eta Gazteria eta Langileria, Ekonomia eta Ogasuna.

Ingurumen eta Mendi eta Euskara batzordeetako buru Mikel Azkargorta izanen da. Patricia Fernandez, aldiz, Kultura eta Jai Batzordeaz arduratuko da. Kiroleta Turismo batzordea Egoitz Aldaz en arduradun izanen da eta Ibai Barandiaran Parte-hartze eta Komunikazio batzordeko lehendakaria da.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

sorgiñak
taberna
LAKUNTZA
948 576 357

2x1
TxikiTxiki
haurren arropa eta lentzeria
948 46 73 08
Ferialeku 2 - ALTSASU

FESTAK Irurtzun:

Iruñari lekukoa hartuta, bost festa egun aurretik

>> Garilak

15, asteazkena
17:00etan

Festetako kartelen erakusketa, udaltxeko bilkura aretoan.



17:30ean Zapiak eta Erraldoi eta Buruhandien konpartsaren liburua emanen zaie 2014an jaiotako haurrei.

18:00etan Txupinazoa, festei hasiera emateko. Kalejira Erraldoi eta Buruhandien konpartsarekin, gaita-jotzaileekin, Orritz dantza taldearekin eta Izengabe txaranga-rekin.

20:00etan Orritz dantza taldearen emanaldia.

21:00etan Dantzaldia Izengabe txaranga-rekin.

22:00etan Larrain dantza.

22:25ean Zezensuzkoa eta buruhandiak, kultur etxean hasi eta Gernika parkean bukatu.

23:30etik 3:30era Dantzaldia Sukar taldearekin.

>> Garilak 16, osteguna

10:00etan Dianak.

11:00etan Haurrendako margotze lehiaketa. Plazan. (Materiala antolatzaileen esku).

13:00etan Musika eskolako fanfarrea.

12:00etatik 14:00etara Haurrendako parkea: piratak.

17:00etan Gorputz-makillajea.

16:45etik 19:45era Haurrendako parkea: piratak.

19:30ean Haurrendako txokolate-jana.

20:30ean Javier Segarraren Enradiado ikuskizuna.

22:00etan Larrain dantza.

22:25ean Zezensuzkoa eta buruhandiak, kultur etxean hasi eta Gernika parkean bukatu.

23:30etik 2:30era Nemux disko mugikorra.

Iturmendi:

Karmengo festak hemen dira

>> Garilak 15, asteazkena

Bezpera.

16:00etan Ginkana eta txalupak, Ximona Gaztetxeak antolatuta.

19:00etan Etxajua: Maialen Aramendia txirindulariak piztuko du.

19:30ean Herriko dantzariak.

20:30etik 22:00etara Dantzaldia Gozo-Gozo taldearekin.

22:00etan Herri afaria, Aitzkozar elkarteak antolatuta.

00:30etik 3:30era Dantzaldia Gozo-Gozo taldearekin.

>> Garilak 16, osteguna.

Karmen eta haurren eguna.

11:00etatik 14:00etara Haurrendako jolasak, pilotalekuan.

12:00etan Meza, herriko zaindariaren omenez.

13:30ean Balkoien lehiaketa, ilusioaren omenez.

17:00etan Haurrendako aparra, kalean.

18:00etan Pilota partidak, Altsasuko eskola.

22:00etan Zezensuzkoa.

20:00etatik 22:00etara Dantzaldia Amets taldearekin.

22:00etan Emakumeen afaria, pilotalekuan.

00:00etatik 3:00etara Dantzaldia Amets taldearekin.

Oharra: egunero auzatea egongo da, eguerdian eta arratsaldean.

>> Irañeta

Erromeri aldia hastear

Hiru igande, hiru erromeria. Agorrilaren aurreko hiru igandeetan hala ibiltzen dira irintarrak, erromeriaz erromeria. Erromerialdia herri sarreran dagoen San Gregorio ermitan eginen den meza-rekin abiatuko da igandean. Hilaren 19an San Migel Berri ermitara joanen dira irintarrak erromerian. Azkena, hilaren 26an, Basabeko bordan izanen

da meza. Zabal dermionan, handik gertu, erorita dagoen San Pedro Martir ermitaren ordezko egoitza da borda berritua. Ondoren otamena izanen da.

Irintarreuren erromerialdia urtero Aralarko santutegian ixten dute, agorriko lehen igandean. Hau da, abuztuaren 2an. Meza izanen da eta ondoren aterpean bazkaltzera geldituko dira.



Basabeko borda mustu zenekoa.

>> Altsasu

Ulaiarko Erkuderen eguna



Erkudengo ermitako aterpean ama birjiniaren irudia eta altsasuarrak.

Ermita txiki batean altsasuarrak duten igurari ona da Erkudengo Ama. Haren irudia urte guztian egoten da ermitan, baina hilaren 2an herrira, elizara ekarri zuten. Orduz geroztik, egunero, 20:00etan mezan bederatzurrena egin da. Hura bukatzearekin batera, Erkudengo Amaren irudiak bere etxera buelta eginen du.

Domekan izanen da. 9:30 aldean altsasuarrak irudia bizkar gainean hartu eta ermitarako 3,5 kilo-

metroak osatuko dituzte. Meza 11:00etan izanen da ermitan. Hura despeditzeko, urtero moduan, Ama Birjina Erkudengoa abestia kantatuko da.

Elizkizuna egin eta gero, udalak ardoa banatuko du. Altsasuarrak gosaltzeko eraman dituzten puskek bultzatzeko balioko du edariak. Jatekoen ondoren, zortziko, jota eta porrusalden txanda izanen da. Lagun taldeak bazkaltzera elkartuko dira gero.

>>

Herri mugimenduak festak prestatzeko batzarra deitu du

Garilaren 16an, ostegunean,
19:00etan Altsasuko Gure Etxea
eraikinean izanen da

Beste hainbati bezala, Altsasuko herri mugimenduari ere festak antolatzeko ordua iritsi zaio. "Festa herriko, parte-hartzaile eta alaietan" sinesten dute mugimenduko kolektiboetako kideek, "herrikeria herriarendako" feste-

tan hain zuzen ere. Hori dela eta, "ezinbestekoa ikusten dugu gaztezein helduak elkartu eta guztion gogo eta indarrez hausnartu eta ideiak aurrera eramatea".

Herri mugimenduko kideen iritziz, "arrazoi batengatik edo besteagatik, azken urtetako festetan jendearen parte hartzea gutxitu egin dela ikusi dugu".

Horregatik, herri mugimenduko kolektiboek elkarlanean aritzeko deia luzatu dute. Elkarlana bideratzeko "modu eraginkorrena batzar irekia antolatzea" dela uste dute, eta, horregatik, herri mugimendutik heldu den ostegunean, 19:00etan, eginen den asanbladan parte hartzera deitu dute.



Altsasuarrak festak hasi berritan.

>>

San Pedron jarritako pankartak kentzea salatu dute

San Pedro zelaiko hariztian festa egunerako Altsasuko hainbat kolektibok pankartak jarri zituzten. Altsasuko herri mugimendutik salatu dutenez, jarritako pankarta guztiak kendu egin zituzten. Adierazi dutenez, haien bidez euskara, internazionalismoa, gazteria, presoak edota sexu-erasoen inguruko aldarrikapenak zabalitzen ziren. Aldarrikapen "guztiz herrikoiak eta zilegiak" zirela azaldu dute.

Herri mugimenduko kideek agerraldia egin zuten ostiralean eta adierazi zuten "gertaera hauen atzean zehatz-mehatz nor dagoen ez jakin arren, guztiz argi daukagu indar errepresiboen esku hartzea tartean egon dela. Argi gelditu da herri honetako aldarriak isilarazi nahi dituztela herri mugimenduaren aurka joz". Agerraldian adierazi zuten, "ez dugu gure jarduna gertatu eta kaleak aldarrikapenez



Herri mugimenduko kideak adierazpen askatasuna aldarrikatzen. TOPATU.INFO

betetzen jarraituko dugu, herri mugimendu bizi bat garela eta bizi dugun errealitatea kalean islatzeko beharra ikusten dugu-

lako". Aldi berean, adierazpen askatasunaren alde agertu eta gertaerekiko ezadostasuna azaltzeko eskatu zioten.




GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza

www.tanatoriosirache.com



Oroigarriak egiten ditugu

Nahi duzun argazki eta testuarekin

GUAIXE KOMUNIKAZIOA
948 564 275
Foru plaza 23-1 Altsasu
argi@guaixe.eus

Javier Larraza Goikoetxea

Zurekin bizitako momentuak gogoan izango ditugu.

Arbizuko ehiztariak

Jabier Larraza Goikoetxea

Eskerrik asko Jabier, pertsona ona izatea zer den erakutsi diguzulako.

Sakanako Mendizaleak

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu



Bidali mezua zorion@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora



Javier Lauzurika "Apolo"

Ez adiorik

M^a Esther eta familia

Bakaiku



GRUPO Funeraria **VASCONGADA** Ehorzketak TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: **943 106 222 • 943 376 980**

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK	4 DENETARIK	7 AISIA/KIROLA
2 TEKNOLOGIA	5 IBILGAILUAK	8 FAMILIA/ETXEA
3 LANA/NEGOZIOAK	6 HARREMANAK	

NORBANAKOEN IRAGARKIAK
Guaixe astekarian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne). Argazki bakoitzeko 3€.
Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.
Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO
Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.eus

Higiezinak
ETXEBIZITZAK
ERRENTAN EMAN

Iruñeko Miguel Astrain kalean pisu bat alokatzen da. Unibertsitatetik 5 minutu eta; 3 logela 3-5 pertsonendako. Interesatuak hots egin 679 07 36 02 telefonora. Washapa ere badugu.

LOKALAK
ERRENTAN EMAN

Etxarri Aranazko Gure Ametsa Jubilatuta Elkarteak taberna alokatzen da. Izen ematea uztailaren 14a baino lehen elkartean, Juntako kide bati eman edo 948 46 18 12 telefonora hots egin.

Galdutakoak/ Opatutakoak
OPATUTAKOAK
Haur baten zapatila opatuta Altsasun. Galdutako duenak hots egin dezala Guaixera, 948 56 42 75.

Lehiaketa
Argazki lehiaketa. Nafarroako Landa Turismoko Federazioak Igo Argazki Lehiaketa

antolatzen du Nafarroa bisitatzen dutenei zuzenduta. Argazkiak e-mail bidez bidali daitezke info@turismoruralnavarra.com helbidera edo zuzenean www.turismoruralnavarra.com web orrialdera igo. Azken horretan dago lehiaketari buruzko informazio guztia.

Oharrak
Haurrak Aralarko goiangeruari aurkeztu. Hilaren 19an izanen da Aralarko santutegian. Hilaren 12a baino lehen izena ematen duten haurrek ekitaldiaren ondoren pergaminoa jasoko dute. Ondoren izena ematen dutenek agorriaren 2tik aurrera jaso beharko dute santutegian.

Odol-emaileak. Garilaren 14an, 15ean eta 16an, arratsaldez Altsasun; eta 17an goizez Altsasun.

Saharako haurrak ekartzeko laguntza zozketa. Zenbaki hauek atera dira: 0833-1130 - 3153 eta 2824.

Bertsu udalekuak. Euskal Herriko osoko haur eta gazteek parte har dezakete bertso-udalekue-tan. Euskal Herriko Bertsolari Elkarteak antola-

tzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsuzale.eus/eu/bertsu-udalekuak>.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sendotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korrante hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpainak. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrantea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com eta amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure beleixeguaixe txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure web gunean www.guaixe.net.

Euskal Memoria Fundazioak babesleak behar ditu. Euskal Herriaren memoria berreskuratzea helburu duen Euskal Memoria Fundazioak 6000 babesle behar ditu. Informazio guztia: www.euskalmemoria.com web gunean.

JAIOTZAK
• Hodei Garmendia Etxabe, uztailaren 7an Etxarri Aranatzen.

HERIOTZAK
• Salvador Iriarte Armendariz, ekainaren 28an Hiriberrin.
• Valentin Abuin Moro, ekainaren 30ean Altsasun.
• Pedro Jose Landa Orue, uztailaren 1ean Altsasun.
• Pedro Mari Irigoien Galarza, uztailaren 1ean Urdiainen.
• Consuelo Andueza Mendinueta, uztailaren 1ean Arbizun.
• Francisco Javier Larraza Goikoetxea, uztailaren 3an Arbizun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

TXIRRINDULARITZA

ERBITI TOURREAN: Movistarreko Hiriberriko txirrindularia Quintana eta Valverde talde buruak laguntzeko lanetan murgildua

dabil. Egunero sorpresaren bat dakarren Tourrean, aurki Pirinioetara iritsiko dira. Sa-kanako zaletuak bertara hurbilduko dira.

Herri kirolak

Sanferminek dakartzatena: Nazabalen buelta eta beste

Nazabal Nafarroako Binakako Aizkora Txapelketan ariko da igandean, Julen Kañamaresekin bikotea osatuta, eta Beltza, Erdozia eta Resano Nafarroako II. mailako kanporaketan lehiatuko dira gaur. Astelehenean Uriak eta Agirrek 3. mailakoan parte hartuko dute

Sanferminek eguerdiro herri kirol jaialdiak ekarriko dituzte Iruñeko Foru Plazara, eta aizkorak toki garrantzitsua izango du.

Gaur, ostiralean, hilak 10, Nafarroako II. Mailako kanporaketa jokatu da Iruñean. 11 aizkolaria lehiatuko dira, hiru sakandar tartean: Goizeder Beltza eta Juan Jose Erdozia etxarriarrak eta Iban Resano dorrobarra. Haiekin batera Manolo Kañamare, Aitor Senosiain, Asier Pellejero, Eneko Saralegi, Jesus Etxeberria, Xabier Mingegia, Migel Angel Etxeberria eta Mikel Indakoetxea lehiatuko dira. Guztiek bina kanaerdiko eta 60 ontzako bana erdibitu beharko dituzte, eta onenek eginen dute aurrera txapelketan.

Nazabal lanera

Azkenaldian txapelketetatik kan-

po egon ondoren, igandean ere aizkolaria txapeldun handia lanean ikusteko aukera izango dugu, Nafarroako Binakako Aizkora Txapelketan lehiatuko baita Floren Nazabal. Etxarriarrak Julen Kañamaresekin osatuko du bikotea, eta bi biko indartsu izanen dituzte arerio: Jon Rekondo-Ruben Saralegi eta Ander Erasun-Donato Larretxea. Bikote bakoitzak sei kanaerdiko eta sei 60 ontzako erdibitu beharko ditu. Ea Nazabalek txapela janztea lortzen duen.

3. mailakoan bi sakandar: Uria eta Agirre

Astelehen eguerdian Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa jokatu da Iruñean. 8 aizkolaria lehiatuko dira, Abel Uria olaztiarra eta Iosu Agirre arbizuarra tartean. Joxean Etxeberria, Oier Kañamare, Esteban Pikabea, Koldo Garcia, Moises Gogorza eta Xuban Kañamare dira gainontzeko partaideak. Bina kanaerdiko erdibitu beharko dituzte.



Nazabal iaz Saralegirekin aritu zen.

Sakandarrak Kadeteen Trontza Txapelketan



Gaur, 12:00etan, Iruñeko Foru plazan

Nafarroako Kadeteen Trontza Txapelketa ostiralegurdiko jaialdian jokatu da. 8 bikote lehiatuko dira, tartean hiru sakandar: Andra Mariko Asier Jaka-Urtzi Nazabala eta Mattin Petriati-Ander Lakuntza eta Iñigo Aritzako Jon Aranburu-Unai Irigoien. Haiekin batera Basaburu-Baztaneko Unai Alema-Xabier Mitxelena eta Antton Irigoien-Iker Aleman, Berriozarreko Julen Mailharin-Unai Rodrigex eta Araxes taldeko Alaitz Olano-laura Saizgos eta Mattie Garaikoetxea eta Julen Saralegi ariko dira. Enborrari 10 epai egin beharko dizkiote. Bukatzeko, kimuen mailako proba konbinatuenera kustaldia egingo dute Andra Marik, Araxesek, Basaburuak eta Artzanegik.

Txirrindularitza

Gorka Arbizu lehen urteko juniorra Aiegin

Intersport Irabiako txirrindularia hirugarrena izan zen helmugan

Larunbatean 19. Aiegi Udaleko Saria jokatu zuten junior mailako txirrindulariek, 81 km-ko proba. 33 txirrindulari iritsi ziren helmugara, Beola Motor-Citroen taldeko Imanol Etxeberria buruzela. Etxeberria bakarrik iritsi zen helmuga (2:00:19), 24 segundora Asesoros de Navarrako Alvaro Pelegrin sartu zen eta 47 segundora Aralar Txirrindularitza Klubeko Intersport Irabia taldeko Gorka Arbizu. Arbizu probako lehen urteko lehen juniorra izan zen.

Burunda klubeko Quesos Albeniz taldeko Juan Alberto Jimenez 6.a sailkatu zen eta bere taldekide Asier Etxeberria 8.a, biak 57 segundora. Irabiako Francisco Javier Lopez 16.a sartu zen, 1:48ra, eta bere taldekide Izai Mauleon 24.a, 2:54ra. Bestalde, aipatzekoa da Burundako Eneko Aramendia Bizkaiko Biran lehiatzen aritu dela asteburuan, Kantabriako talde bati utzita ta Bira bikaina burutzen.



JOSU ETXEBERRIA BIGARRENA TOLOSAN

Burunda klubeko kadeteek larunbat goizean lasterketa izan zuten Tolosako Amaroizko auzoan. Josu Etxeberria bigarrena izan zen, Ailetz Lasa hamazazpigarrena eta Hodei Zia hogeita hamalagarrena. Taldeka hirugarren talde onena izan zen Quesos Albeniz.



ESKOLAKOAK URDIENEN

Urdiaingo festek txirrindularitzari tokia egin zioten, larunbatean kategoria txikiko probak jokatu baitziren. Bertan lehiatu ziren Burunda eta Aralar txirrindulari taldeetako txirrindulariak.

Areto futbola

Xotak Magna-Gurpea izena hartuko du

Magnesitas Navarras eta Gurpea izango dira Xotako babesle nagusiak 2015-2016 denboraldian

Xota klubak Magnesitas Navarras eta Gurpea taldeekin akordioa sinatu du eta aipatu bi enpresak izango dira Xotako babesle nagusiak 2015-2016 denboraldian. Horrela, Magna-Gurpea izango da Xotaren izena hurrengo denboraldian. Akordioa ekainaren 19an aurkeztu zuten Xotako presidente Tatono Arregik, Gurpeako kudeatzaile Juan Antonio Ibañezek eta Magnesitas de Navarrako zuzendari Javier Creixellek. Hiru aldeak pozik azaldu ziren akordioarekin. "Gurpea eta Magnari esker, amets berdeak aurrera jarraituko du" adierazi zuten Tatono Arregik.



Akordioaren aurkezpena.

Tolrák Xotari agur



Bartzelonara itzuliko da

Azken bi urteetan Irurtzungo klubean aritu da Tolrá, Bartzelonan utzita, baina orain bere taldera itzuliko da, Bartzelonara. "Marc jokalaririk berezia da. Beterako agur esatea nahiko genuke, horrek Bartzelonan arrakasta izan duela adieraziko baiduke, bainagero arte bat bada, berak bada, ki hau bere etxea dela. Kirol mailan eta maila pertsonalean irabazi gaitu. Gurekin bi urte egon izana harro egotekoa da" adierazi zuten Xotako presidente Tatono Arregik. Tolrá ere hunkituta zegoen. "Bi urte hauek nire bizitzako onenak izan dira. Etxean bezala sentiarazi naute" aitortu zuten jokalariek. Tolrá bere garaian Araçak utzitako tokia betetzeko iritsi zen, eta orain paradoxak paradoxa, orain Araçak itzuli da Tolráren tokia betetzera.

Pilota

Irujo-Barriolaren kontra irabaztera derrigortuta



Urrutikoetxea eta Beroizen kontra galdu ondoren, ostiralean Irujo eta Barriolaren kontra irabazi beharrean daude Ezkurdia eta Zubietari

Sei bikote daude lehiatan Sanferminetako Binakakoan. A multzoan Olaizola II-Untoria, Berasaluze II-Albisu eta Altuna III-Rezusta, eta B multzoan Urrutikoetxea-Beroiz, Irujo-Barriola eta Ezkurdia-Zubietari. Multzo bakoitzan ligaxka jokatzen ari da.

Asteazken gauean Sanferminetako Binakako Torneoan sartu ziren lehiatan Joseba Ezkurdia eta Aitor Zubietari. Sakandarrek arerio gogorak zituzten: Bengoetxea

VI.a ordezkatu duen Urrutikoetxea buruz buruko txapelduna eta Beroiz. Partida gogorrean Asegarcekoak izan ziren jauna eta jabe eta sakandarren gaintetik pasa ziren, 22-8 gailenduta.

Datorrena

Nahiz eta txapelketa hanka okerrarekin hasi, egoerari buelta emateko aukera, izan, badute. Gaur, ostiralean, Irujoen eta Barriolaren kontra jokatu beharko dute sakandarrek eta, jakina, horretarako derrigorrez irabaztera behartuta daude. Baina ez da erraza izanen. Sanferminetako laut'erdikoa galdu eta gero binakakoa lortu nahiko du Irujo, eta Barriolaren laguntza bikainarekin, gauzak izugarri zailduko dizkie Ezkurdia eta Zubietari. Baina ea sakandarrek dena ematen duten, zortea ere alde duten eta puntutxoak lortzeko aukera duten. Partida ETB1ean jarraitu ahal izango da, zuzenean, 22:15etik aurrera. Bestalde, B multzoan igandean Urrutikoetxeak eta Beroizek Irujo eta Barriola izango dituzte aurkari. Multzo bakoitzeko onenek final handia jokatu dute uztaillaren 14an, asteartean.

Pilota

Olaztiko San Migel Pilota Txapelketak atsedena hartuko du

Sanferminetan ez da jardunaldirik jokatu

Sanferminak direnez, asteburu honek ez da Olaztiko San Migel XLIV. Pilota Txapelketako jardunaldirik jokatu. Hurrengo asteburuan, yztaukareb 17an eta 18an finalerdia jokatu dira eta Olaztiko festetan final handiak.

9. jardunaldiko emaitzak:

OSTIRALEKO EMAITZAK:

2. maila:
Ansoategi-Joa 18 / Barban-Zubieta 15
Beñat-Pablo 0 / Dz. de Gereñu-Gonzalez 18

1. maila:
Iurgi-Javier 18 / Etxague-Lopetegi 15
22 urtez azpikoak:
Murgiondo-Mariez-kurrena 22 / Zabala-Txorens 3
Txiapuso-Cordon 22 / Santamaria-Ruiz 15

LARUNBATEKO EMAITZAK

3. maila:
Salinas-Aritz 18 / Asier-Victor 0
Pleito-Ondatz 18 / Iñigo-Ernesto 15

1. maila:
Mikel-Ioritz 0 / Garziandia-L. de Zubiria 18
Loban-Arbizu 18 / Adur-Mikel 14



PILOTA OSTEGUNEAN ITUR-MENDIKO FESTETAN

Asteazkenean hasiko dira Iturmendiko festak. Udalak antolatutako egitarauaren barruan, kirolei tartea egin zaie. Horrela, ostegunean, 18:00etan, Altsasuko eskolako antolatutako pilota partidak jokatu dira.

Automobilismoa-motoziklismoa

Auto klasikoaren erakarpena

120 ibilgailu pasa bildu ziren Altsasuko II. Klasikoaren Topaketan

Larunbat goizean jende ugari pasatu zen Zumalakarregi plazatik. Horretarako aitzakia auto klasikoaren topaketan elkartutako autoak izan ziren. 100 auto, 15 motor, bi bizikleta, bi kamioi eta kart bat (joan den urtean 60 izan ziren). Guztiak klasikoak eta guztiak ikusgai. Topaketaren antolakuntzan aritu zen Aitor de los Santosek esan zigunez, ibilgailuak Erriberitik, Tafallatik, Donostiatik, Balmasedatik edota Basauritikekarri zitutuzten Altsasura. Sakandarren ibilgailu asko ere bazeuden ikusgai. Hala ere, antolatzaileak kexu ziren "hemen halako auto asko daude eta jendeak ez ditu topaketarako atera".

Auto klasikoaren topaketa antolatzen den bigarren aldia da. Haren prestaketan aritu zen Eneko Pagolak azaldu zigunez, zaletasun handia dutelako ekin zioten topaketa antolatzeari. Plazak izan zituen bisita kopuruak arrazoia eman die. Ahozahokoak, kartelek, sare sozialek eta klasikoaren beste topaketetan zabalduak deialdiak oihartzun zabala izan zuten. "Autoekiko zaletasun handia dago Sakanan eta, bestela, halako ibilgailu bat ikustek beti sortzen ditu oroitzapenak".

Goizeko 10:00etatik 13:00etara Citroën historikoak, Renault Alpi-



Etxe askotako autoak eta motorrak ikusteko aukera izan zen Altsasun.



Seat 600 gorriak begirada asko erakarri zituen.

neak, R5ak, Golfak, BMWak, Seat 124ak, Seat 600ak, deportiboak, gerrako kamioi bat eta beste hainbat ibilgailu ikusteko aukera izan

zuten. Topaketaren ondoren, haietako askok Arbizuko bidea hartu zuten. 120 pertsona elkartu ziren bazkaltzera.

Triatloia

Borrega Pasaian eta Lakuntza Tuteran

Pasai Donibaneko Triatloian eta 15 Ebroko Erronkan maila polita eman zuten bi sakandarrek

Igandean II. Pasai Donibaneko Triatloia jokatu zen (750 m igerian, 20 km bizikletan eta 5 km korrikan). 167 triatletek osatu zuten proba, Brendan Sexton (1:05:59) eta Charlotte McShane (1:16:05) buru zirela. Sakana Triatloi Taldeko Javier Borrega 39.a sailkatu zen (1:21:12).

EBROKO ERRONKA

Igandean Tuteran jokatu zen 15. Ebroko Erronkan (750 m igerian, 26 km bizikletan eta 5 km korrikan) 208 triatleta iritsi ziren helmugara, Saltokiko Martin Ignacio Müller (1:09:03) eta Urolako Ibone Sanchez (1:20:50) azkarrenak zirela. Proban 35 graduko tenperaturari egin behar izan zieten aurre triatletek. Müllerrek bosgarren aldiz irabazi zuen Ebroko erronka eta ia minutu erdiko alde atera zion bere taldekide Migel Etxenikeri, korrikako azken txanpan. Sakana Triatloi Taldeko Mikel Lakuntza 56.a iritsi zen helmugara (1:23:04). Nafar Kirol Jolasetarako baliagarria zen Tuterako Ebroko Erronkan, aurrebenjamin proban Sakana Triatloi Taldeko Alain Razkin gailendu zen eta benjaminen mailan talde bereko Egoi Lakuntza hirugarrena sailkatu zen.

Mendi lasterketak

Sakandarrek 7. Zumaia Flysch Traillean

Ariz 220.a sailkatu zen maratoi erdian

629 korrikalarik osatu zuten, igandean, 7. Zumaia Flysch Traillean. Horiatik 171 korrikalarik maratonia burutu zuten (42 km) eta gehien-goak, 458k, maratoi erdia (21 km). Maratonia Manuel Morillasek irabazi zuen (3:29:00). Aldiz, Raul Garcia gailendu zen maratoi erdian (1:37:57). Sakandarrek maratoi erdian parte hartu zuten. Juan Pedro Ariz 220.a sailkatu zen (2:22:00), Migel Ubeda 225.a (2:22:32), Esteban Tejedor 226.a (2:22:34), Juan Garziandia 293.a (2:28:45) eta Fernando Mazkarian 294.a (2:28:48).

Futbola



Danbolintxulokoak, txapeldunak.

Danbolintxulo Altsasuko Peñen txapelketako txapelduna

Etxarriko taldeak irabazi zuen Altsasuko Peñen antolatutako Futbol 7 Txapelketa

Larunbatean jokatu zen, Altsasuko Dantzalekun, Altsasuko Peñen antolatutako Futbol 7 Txapelketa. tenperatura altuei aurre eginez, Etxarriko Danbolintxulok irabazi zion, final handian, Altsasuko Piper Crew taldeari. Mayetza taldea izan zen hirugarrena.

Maisueneako final laurdenak

Bihar, larunbatean, Olaztiko Maisuenea Gaztetxearen Areto Futbol Txapelketako final laurdenak jokatu dira. 17:00etan O.G.A.-k Pete Crew izango du aurkari, 18:00etan Bakaikuk Piper Crew, 19:00etan All Starrek Arbizu eta 20:00etan Bayer Marroccok Leones del Atlas. Lakuntzako Parkea Martxan txapelketan ez da jardunaldirik jokatu.

Automobilismoa



Garikoitz Goñi, beltzez, kopilotuarekin.

Goñi eta Garriz bosgarrenak III. Sanserranoko Rallysprintan

Hiru ibilgailu sakandarrek proba utzi behar izan zuten

Asteburuan jokatu da, Errioxan, III. Sanserranoko Rallysprinta-Ardoaren Ibilbidea. Probak 2 sekzio zituen, eta sekzio bakoitzean hiru eremu osatu behar izan zituzten taldeek. 20 ibilgailu lehiatu ziren eta horietatik erdiak lortu zuten proba osatzea. Azkarrenak Joseba Beola pilotua eta Jose Luis

Iratzoki kopilotua izan ziren (Lancer Evo IX), 32:15 denborarekin. Etxeberriko Garikoitz Goñi eta Ricardo Garriz bosgarrenak izan ziren (Megane, 34:56). Sakandarrek osatutako hiru talde proba utzi behar izan zuten: Garikoitz Flores-Iñaki San Migelek (Lancer Evo VI), Roland Holke-Javier Goikoetxea (Impreza N14) eta Arkaitz Irigoien-Oier Larrañaga (R11).

NEUMATICOS
IRADI

Aurreztu zure denbora!

Zerbitzu osoa
nahi duzun
lekuan

619 882 181
neumaticosiradi@gmail.com

kultura >>

Irañetak bertso-udalekua hartuko du

Euskal Herriko Bertsolari Elkartek 18. aldiz egin du eskaintza, hainbat txanda eta herritan. Irañetako aterpetxean 12 eta 14 urte arteko gazte elkartuko dira bertso-udalekuan, astelehenetik hilaren 22ra arte. Euskal Herri osoko haur eta gazteek parte hartzen dute eta bertsolaritzaz eta ahozkotasanaz gozatzeko aukera izanen dute udalekuan. Hala, bertso afaria egingen da, eta gaztetxoek aukera dute euren erreferente direnekin jolasteko, hitz egiteko eta bertsoan jarduteko. Kantugintza da udalekuetako bes-



te zutabe garrantzitsuetako bat. Txanda bakoitzean kantuak sortzen dira, eta guztien artean udalekuetako diskoa osatzen da.

Irurtzungo plaza zinema areto bihurtuta



Udako Zinema zikloa bueltan da. Irurtzungo Kultur Kontseiluak antolatuta, dozena erdi film iragarri ditu udarako. Aurreneko emanaldia, festa bezperan, asteartean izanen da, baina gainontzeko bost filmak asteazkenetan izanen dira. Udako

Karteldegia

Garilak 14: Noche en el museo. El secreto del Faraon.

Garilak 22: En el ojo de la tormenta.

Garilak 29: Anne.

Agorrilak 5: Díosmío ¿Pero qué te hemos hecho?

Agorrilak 12: Maléfica.

Agorrilak 19: Loreak.

Zinemako emanaldiak 22:00etan hasiko dira.

Salazarren bi eskultura kendu dituzte

Iruñeko Txantrea auzoko Munduko parkean zeuden bi eskulturak egoera penagarrian zeuden

Hautsita, hondatuta eta lurtean botata. Hala zeuden Dora Salazarren *Bestiario 1* eta *2* obrak Txantreako Munduko parkean. 1991n jarri zituzten eskulturak eta Salazarrek erakunde publiko batendako egindako lehenak izan ziren. Herritarrek arriskuaz gaztigatu zuten udala. Artista altsasuarrak berak duela urte bat obrak zaharberritzeko bere burua eskaini zion Iruñeko Udalari baina ez zuen erantzunik jaso. Eskulturen mantenu faltarekin kexu azaldu da altsasuarra. Udal berritik adierazi dute Salazarrekin harrema-

netan jarriko direla gaiak hizketatzeko.

Eskulturak

Iruñeko Eskultura Gidan (www.esculturas.pamplona.es) Francisco Javier Zubiaurrek Salazarren bi obra horien inguruko azalpenak ematen ditu. *1. Bestiarioa* obraz dio: "artropodo erraldoi baten hanka moduko baten irudikapena da -narrasti batena ere izan litekeena-, askatuta dagoena, lurtean abandonatuta balego bezala. *2. Bestiarioaz*, berriz, "enbor piramidala eta planta poligonal irregularra dituen egitura da, mate itxurako 90 xafra galbanizatuak osatua; egituraren trunkaduraren barnean beste egitura bat ageri da, alderantzizko forma piramidala duena, zortzi aurpegikoa eta alde aldaezinekoa".

Zubiaurrek azaltzen duenez, "piezak, osotasunean, animalien mundua gogorarazten ahal du, kontzeptualki, eta, aldi berean gorputzen morfologia sinbolizatu, non ahurtasuna eta ganbiltasuna estuloturik ageri baitira". Adituak gaineratu duenez, "Dora Salazarrek ez du lurteko material birjinetara jotzen, baizik eta material arrunt eta pobreetara, bai eta gure gizarte kontsumistaren hondakinetara ere". Eraginak ere aipatzen ditu: "Duchampen, Calderren, Pistolettoren, 80ko hamarkadako eskultura objektual britaniarren eta, batez ere, Tinguelyren eraginak nabarmenak dira surrealismoaren eta dadaismoaren artean ibiltzen diren muntaietan, prozedura teknikoetan ez ezik muntai horiekin jorrazteko erabiltzen duen umore garratzean ere".



ARGAZKIAK: IRUÑEKO UDALA

bazterretik

Aritz Viñas

Damien Rice

Gaurko kantautore berri bat aurkeztuko dizuet ditudan esaldi gutxi hauetan. Damien Rice da kantautore honen izena, eta ezaguna egin zen 2004an *Closer* pelikulan bere bi abesti atera zirelako. Hau gertatu ondoren bere abestiak beste hainbat telesailetan ere agertu dira, *House*, *Perdidos* eta *Misfists* en ere agertu dira abeslari honen abestiak.

Ezagun bihurtzera eraman duten abestiak *The blower's daughter* eta

Cold Water izan dira, hauek baitira aurretik aipatutako filmean eta telesailetan agertu direnak. Abestiek amodioaren gorabehera buruz hitz egiten dute, sexuari eta fidelitasun ezari buruz. Bere hiru diskoak gai berdinei buruz hitz egiten dute, letra oso zainduekin eta umore zantzuekin batzuetan. Adibide bat jartzeko lehen aipatutako *The blower's daughter* abestiaren bukeran "zuga pentsatzen jarraitzen dut... beste bat ezagutu arte" esaten du.

Nolabaiteko melankolia aurkezten

digu, baina oso ondo landutako abestiekin eta sentimenduekin. Bere bigarren diskoa argitaratu ondoren Damien mundutik desagertu egin zen, musika industriari ihes egiten. Lan egiten zuen disko-grafiarekin mozteko era bat zela ere esaten da. 1999an bere lehen banda utzi zuela esaten da, haien lehen diskoak hartu zuen bidea ez zitzaizolako gustatzen, Polygram diskoetxeak presio handia egiten zuelako.

2008an bere web orrian argitaratutako hainbat bideo berrik uler-

tzera ematen zuten disko berri batean lan egiten zegoela, baina inork ez zuen horretaz gehiagorik entzun edo jakin. Bitartean Damienek kontzertuak ematen jarraitzen zuen, beti aurreko bi disko horietako abestiak abesten, disko berri baten pistarik eman gabe.

2011n eman zuen aurrerapausoa: bere neskalaguna zen Melanie Laurenten disko bost abesti idazten lagundu zuen eta horietako beste bi interpretatu zituen. Baina bere disko berria argitaratzeko unea 2014an izan zen. Bigarren disko-

tik hirugarrenera zortzi urte pasatzen utzi zituen. *My faded fantasy* da bere azkeneko diskoaren izenburua, eta aurrekoak bezala melankolia da honen abestiak transmititzen duten sentimendurik garrantzitsuenak.

2002. urtean atera zuen bere lehenengo diskoa, ondoren 2006an bigarrena eta azkenik 2014an hirugarrena. Esan dezakegu Damien ez dela urtero disko bat ateratzen duten artista horietakoa, baina nire ustez hainbeste itzaroteak merezi du.

Zamartzera itzuliko dira arrasto arkeologiko gehiagoren bila



Azkeneko kanpaina izan liteke aurtengoa. Finantziario faltagatik indusketa lanak bukatutzat eman beharko dituzte nahiz eta Zamartze emankorra izan arkeologia arrastoan

Maialen Huarte Arano

Seigarren kanpaina eta azkena izan liteke aurtengo udakoa. Fran Valle de Tarazaga indusketa eta ikerketa arduraduna Aditu enpresarekin ari da lanean Zamartzen. Uhartar-Arakilgo eremu hori arkeologia indusketan oso aberatsa dela uste du Valle de Tarazagak. "Aurreko bost kanpainetan egindako lanek erromatar garaiko jendea nola bizi zen eta oro har gizartea nola antolatzen zen jakiteko aukera eman digute", azaldu du. Iaz, dena dela, izan ziren euriteen ondorioz ezin izan zuten nahi adina lan egin. Hala ere, pozik daude emaitzarekin material berria lortu zutelako eta erromatar garaiko eraikuntza zerbaiten zantzuak topatu zituztelako lur azpian.

Erdi Aroko hilerridagoen eremuan orain arte ezagutzerik izan duten arrastorik zaharrenak topatu dituzte. Oraindik, hori bai, aurkitutako monasterio baten arrastoak ikertzea falta da zehazki jakiteko zein garaikoa zen monasterio hori. Indusketetan aurkitutako gainerako materialarekin errazago izanen da lan egitea mantentzea oso ona delako. Datu zehatzagoak ezagutzeko aukera izatea espero dute, erromatar garaian ondorengo gizartearen ezaugarriak zeintzuk ziren jakiteko.

Erromatar garaiko kronologia osatzeko lanak ere egin dituzte Zamartzen aurkitutakoarekin. Horretarako, baina, iazko kanpaina ez zen batere aproposa izan.

Eurite asko izan zituzten eta horrek ez zien utzi behar bezala lurra lantzen. Eguraldia ez ezik, Erdi Aroko aurkikuntza bat ere izan zuten tartean eta hori lantzea ere komenigarria izan zitekeela iritzi zuten. Zehazki, eraikin baten zantzuak topatu zituzten, baina oraindik ez dute argitu zein funtzio zuen eraikin horrek.

Iazko jardunarekin segitzeko asmoa aurten

Erromatar garaiko kronologia egiten jarraitzea eta orain arte aurkitutako piezak nondik datozen argitzea izanen da seigarren kanpaina honen xedea. Horrez gain, hilerrian hilobietatik ateratako gorpuzkinak aztertu eta garai hartako jendearenez auzarriak ezagutzeaz gainera bizimodua ere zer nolakoa zen jakin nahi dute. Erromatar garaiko galtzadak ere aztertzea da asmoa eta inguru horretan beste eraikinik ba ote zen argitzea.

15 arkeologia ikasle izanen ditu Valle de Tarazagak berarekin eta beste zenbait arkeologo aditurekin batera ariko da lanean. Suitzatik, Erresuma Batutik, Estatu Batuetatik eta Kanadatik joaten dira Zamartzera ikasitako praktikan jartzera. Uztaila amaieran eta abuztuan izanen dira lanean.

Oraingoz behintzat seigarren azken kanpaina izanen dela dio Valle de Tarazagak: "arkeologia indusketan oso aberatsa da Zamartze baina finantziarioa behar da lan hauetarako", azaldu du. Dena den, ez da bakarrik diru faltagatik izanen. Urteotan egin dituzten aurkikuntzak sakonki aztertzeak aukera izanen dute gainerako kanpainetan. Lurra aztertzeari utzi eta aurkikuntzak ikertzeari ekinen diete, beraz.

300 gorpuzkin dira Zamartzeko hilobietatik atera dituztenak, 500 aurkikuntza material ezberdinak uztartzen dituenak eta milaka zeramika puska ere bai. Infor-

mazioa eskuratu eta horiek guztiak zein garaikoak ziren identifikatu behar dituzte datozen urteetan. Laborategiko lana da aurretik dutena. Modu horretan, etorkizunean indusketa lan gehiagoez egiteko orain arte aurkitutakoa zer den, nortzuk diren, zer egiten zuten eta noizkoak ziren argitzea ezinbestekoa da. Hori argituta, etorkizuneko bilaketa nondik nora joanen den zehaztea etorriko litzaiteke.

Aurkikuntzak herritarrendako ikusgai

"Une aproposa izan daiteke orain arte Zamartze lanetan egindakoarekin jakin duguna herritarrekin konpartitzeko", uste du Valle de Tarazagak. Uhartar-Arakilgo bizilagunendako eta gainerako

sakandarrendako ongi legoke Zamartze museoan euren lurretan agertutako guztiaren berri ematea. "Herritarrekeuren historia ezagutzeko eskubidea dute, aukera hori eman behar zaie", nabarmendu du.

Indusketa lanean ari direlarik ere bada aukera Zamartze bisitatzeko. Edozein unetan bertaratzeko aukera dagoela azpimarratu du Valle de Tarazagak eta bisita gidatuak ere eskaintzen dituztela gogorarazi du. Larunbatetan izaten dira bisitak 11:00etan. Lehenago izen ematea komeni izaten da, eta horretarako e-posta idatzi behar da info@aditu.info-ra. Era berean eta aurreko urteetan bezala, norbaitek interesa izanen balu indusketa lanetan boluntarioki aritzeko ere bidali dezake eskaera.



Nonerabili

ARROXA LIBURUDENDA

ETXARRI ARANATZ
%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

URDIAIN
50€ko erosketarekin gero, etxeko produktua opari.

LARKA

ALTSASU
100 €tik gorako erosketengatik 10€ko deskontu balaia (beherapenetan izan ezik).

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU
0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO

ALTSASU
Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulanean.

JAVIER AUTOESKOLA

IRURTZUN
% 10eko deskontua matrakulan.

PATXI GALARZA

IRURTZUN
%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

JM AGIRRE HARATEGIA

LAKUNTZA
50€ko erosketarekin gero etxeko produktua opari.

DANTZALEKU

ALTSASU
Bazkarietan eta afarietan kafea edo kopa doan.

KAXETA

ETXARRI ARANATZ
%5eko deskontua irakurketako liburuetan.



G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 4%	euria: 13%	euria: 10%	euria: 5%	euria: 5%	euria: 8%	euria: 13%
Min: 11 Max: 33	Min: 14 Max: 20	Min: 13 Max: 22	Min: 12 Max: 25	Min: 13 Max: 27	Min: 14 Max: 27	Min: 14 Max: 27

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	37	14.5	1.4
Etxarri A.	36	12.9	4.1
Altsasu	34.5	15	2.5
Aralar	28	7.8	5.4
Urbasa	31.2	13	4.8

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
16	24	31	7

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

GARILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri museorako 2 sarrera, Katxiporreta lotea, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Aquariumerako sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Katxiporreta lotea, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Aquariumerako sarrera.

>> 11 galdera

Ana Carmen Huarte

Nafarroako dietista-nutrizionisten elkargoko presidentea

Testua: Maialen Huarte Arano



Roll upak egiten ditugu!

diseinua, inprimatzea, aluminiozko kutxa, mastila eta garraiorako poltsarekin

GUAIXE KOMUNIKAZIOA

948 564 275 argi@guaixe.eus

Zure mezua zabaltzeko, eska ezazu zurea!

1. Zer da Xalok?
18 urtetako lanak sortu du Xalok. Elikadurarekin zerikusia duten arazoak lantzen ditugu. Baina ez hori bakarrik. Nutrizioaren garrantziaz ohartarazteaz gainera, kirola, estetika eta erlaxazioa ere beharrezkoak direla azaltzen diegu gure bezeroei. Osasuntsu egoteko horien guztien oreka lortzea da gako.

2. Gorputzeko arazo asko konpondu daitezke jateko modua aldatuta?
Gure gorputzean sortzen diren arazoak, eritasunak edo minak elikadura egoki batekin sendatu edo hobetu daitezke. Filosofia horrekin egiten dugu lan.

3. Zer jaten dugun garrantzitsua da, baina ez da gauza bakarra osasuntsu sentitzeko.
Elikadura zaintzeaz gainera, oso garrantzitsua da kirola egitea. Gorputza zainduz eta burmuina zainduz lortuko dugulako benetako ongizatea.

4. Dietista-nutrizionista izatea askoren ustez 'mehetzeko aditu' izatea da. Ez da horrela, ordea.
Duela 18 urte lanean hasi nintzen, egia da niregana etortzen zirenen bezeroen %100 mehetzeko dieten bila zetoirela. Pixkanaka, guk dugun filosofiari esker bezeroen helburuak ere aldatuz joan dira. Gero eta gehiago da ongi jateko ohitura hartzen hastea.

5. Modu orekatuan jateko ohitura hartzea kostatzen da?
Proposatutako aukeren artean denetik jateko paradarrik bada. Ez dago modu bakar bat ongi jateko.

Norberaren bizitzaren eta gorputzaren beharren arabera da eskaintzen ahal diegun jateko modua. Ez dago jateko modu estandarrik. Batzuei gehiago kostatzen zaie jateko ohitura egokia mantentzea; baina ahalegina egiten duenak hobekuntza sumatzen du.

6. Xalok zentro gisa duela hiru urte zabaldu zenuten.
Nutrizionista eta dietista naiz ni, baina elikadura zaintzearekin ez da nahikoa. Bezero askorekin bestelako profesionalen beharra nuela antzeman nuen. Kirolari bati elikadura mota bat eskaintzen diot, baina horrekin bakarrik ezin du aurrera egin. Prestatzaile fisiko baten beharra du, fisioterapeuta batena ere bai, agian, eta kirol medikuarena, adibidez. Xalok ireki arte ez nuen aukerarik nire filosofia jarraitzen zuten profesionalengana bidaltzeko, eta orain, zentro honetan bertan daude. Oinarri berberak segitzen ditugu guztiek eta lan egiteko modu berbera dugu. Eskaintza osoa da.

7. Elikadura okerrak ondorioak dituela sumatu duzu urteotan?
Digestio arazo asko dago. Eragina gauza askok izan dezake, kasu batzuetan urte askoan medikazioa hartzeagatik sortutakoak, droga kontuengatik, estresagatik, antsietateagatik eta bizitzeko daukagun moduagatik.

8. Ez dagoela jateko modu estandarrik diozu. Zeintzuk lantzen dituzue Xaloken?
Pertsonaren bizimoduaren arabera eta behar duenaren arabera elikadura erak eskaintzen ditugu.

Dieta batzuk terapeutikoak dira: obesitatea, kolesterola, hipertentsioa, diabetesa, azido urikoa, anemia edo kardiopatiak kontuan hartuz, adibidez. Dieta alternatiboekin ere lan egiten dugu, besteak beste: disoziatuak, makrobiotikoak, barazkijaleak eta proteikoak.

9. Zer nolako jendea etortzen da?
Mota guztietakoa, 5-6 urteetatik zahartzarora bitartekoak. Haurrak direnean alergia eta intolerantzia asko izaten dituzte eta gurasoei laguntza handikoa zaie hemen eskaintzen dieguna. Nerabezaroan anorexia eta bulimia ere lantzen ditugu. Eta jende helduagorekin edozein motako arazo. Onkologiatik pasatako jendearekin ere lan handia egiten ari gara. Kirolari asko ere etortzen da gurera.

10. Uda aurretik etortzen al da jendea "dieta miragarri" eske?
Tamalez oraindik bada halako jenderik. Guk ez dugu miraririk eskaintzeko. Elikadura bizi osoan zaindu beharrekoa da, osasuntsu izateko beharrezkoa. Mehetzeko beharra duenak ere, esfortzua egin behar du eta ongi janzte argaldu.

11. Zein aholku emanen zenuke elikadura osasuntsu bat izateko?
Denetik jatea baina modu orekatuan. Produktuen kalitatea ere aintzat hartzea oso garrantzitsua da. Modu ordenatu batean jan eta elikadura egoki bat izatea ohitura bilakatu. Oso garrantzitsua da ohitura egokiak ematea haurrak direnetik. Oreka mantendu behar da jaiotzetik elikadura zainduz eta kirola eginez, horrela izanen baitugu burmuin osasuntsua.